

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	LURPEKO ETA AIRE ZABALEKO INDUSKETETAKO GARRAIOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	Iraupena	80
Kodea	MF0857_1		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako eragiketa osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Indusketako eta kargako eragiketa osagarriak	Iraupena	80
	Leherketetako eragiketa osagarriak		50
	Euspenco eragiketa osagarriak		80
	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako arriskuen prebentzioa (zeharkakoa)		50
	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako eragiketa osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0857_01 GARRAIOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Garraiatzen laguntzeko eragiketako segurtasun-neurri espezifikoak aplikatzea, erabili beharreko babes kolektiboak eta norbera babesteko ekipamenduak identifikatuta.

E1.1 Aire zabaleko garraioko eragiketa osagarrietako arrisku espezifikoak deskribatzea, arrisku horiek hartu beharreko prebentzio-neurriekin lotuta.

E1.2 Materialen eta solteko gaien lurpeko garraioko eragiketa osagarrietako arrisku espezifikoak deskribatzea, arrisku horiek hartu beharreko prebentzio-neurriekin lotuta.

E1.3 Garraioko eragiketa osagarrietan norbera babesteko derrigorrezkoak diren ekipamenduak identifikatzea, dagozkion arriskuekin lotuta.

E1.4 Garraioko eragiketa osagarrietako norbera babesteko ekipamendu espezifikoaren erabilera eta mantentze egokia azaltzea, fabrikatzailearen erabilera-eskuliburuaren arabera.

E1.5 Garraioko eragiketek ingurumenean eragin ditzaketen arriskuak ezagutzea; horretarako, ingurumena babesteko kasu bakoitzean hartu behar diren neurriak adieraziko dira.

E1.6 Aire zabaleko edo lurpeko indusketetako garraioko egoera espezifiko batean:

- Lan- eta ingurumen-arloko arriskuak eta hartu beharreko prebentzio-neurriak aipatzea.
- Babes individual eta kolektiborako beharrezkoak diren ekipamenduak hautatzea.
- Norbera babesteko ekipamenduak behar bezala erabiltzea eta mantentzea, fabrikatzailearen aginduen arabera.

E1.7 Garraio-lanetan gehien erabiltzen diren segurtasun-seinaleztapen eta balizaje-motak bereiztea, haien erabilera eta mantentze eraginkorra bermatuta.

E1.8 Seinaleztapeneko eta balizajeko egoera espezifiko batean:

- Prozeduran ezarritako segurtasun- eta balizaje-seinaleak identifikatzea.
- Jarri beharreko segurtasun- eta balizaje-seinaleztapenaren egoera egokia dela ziurtatzea.
- Seinaleztapena edo balizajea jasotako aginduen arabera jartzea.

A2: Garraioko eragiketa osagarrietan erabiltzen diren erremintak, lanabesak, osagarriak eta materialak ezagutzea; eragiketa bakoitzari dagozkionak identifikatuta.

E12.1 Garraioko eragiketa osagarrietan erabilitako erremintak eta lanabesak aipatzea, haien erabilgarritasuna, ezaugarriak, funtzionamendua eta erabilerarako mantentze-lanak identifikatuta.

E12.2 Garraioko eragiketa osagarrietan erabilitako osagarriak aipatzea, haien erabilgarritasuna, ezaugarriak, funtzionamendua eta erabilerarako mantentze-lanak identifikatuta.

E12.3 Lurpeko edo aire zabaleko indusketetako garraioko egoera espezifiko batean:

- Eragiketan erabiltzen diren erreminta-, lanabes- eta osagarri-motak ezagutzea.
- Eragiketa gauzatzeko erabilitako erremintak, lanabesak eta osagarriak manipulatzeko.
- Erremintak, lanabesak eta osagarriak garbi eta ordenatuta uztea esleitutako lekuan.

A3: Bideak eta pistak prestatzen, jartzen eta mantentzen laguntzeko prozedurak aplikatzea, segurtasuneko barne-xedapenak beteta.

EI3.1 Bide bat jartzeko lur jakin batek izan behar dituen ezaugarriak identifikatzea, hura prestatzeko egin beharreko urratsak ezagututa.

EI3.2 Bide bat osatzen duten elementuak identifikatzea, hura instalatzeko egin beharreko urratsak ezagututa.

EI3.3 Bideetako eta pistetako mantentze-eragiketa ohikoenak deskribatzea, haiek aplikatzeko zirkunstantziak identifikatuta.

EI3.4 Bideetako matxura eta kalte ohikoenak ezagutzea, kasu bakoitzean egin beharreko konponketa-eragiketak bereizita.

EI3.5 Zirkulazio-baldintza hoberenei eusteko pistak eduki behar dituen ezaugarriak identifikatzea.

EI3.6 Pistetako mantentze-eragiketa ohikoenak deskribatzea, haiek aplikatzeko zirkunstantziak identifikatuta.

EI3.7 Pistetako matxura eta kalte ohikoenak ezagutzea, kasu bakoitzean egin beharreko konponketa-eragiketak bereizita.

EI3.8 Bideak prestatzeko, instalatzeko eta mantentzeko egoera espezifiko batean:

- Lurra prestatzea bide berriaren tarte berri bat jartzeko argibideen arabera.
- Zeharromak adierazitako distantziaren, goragunearen eta maldaren arabera jartzea.
- Zeharromak juntura-estalki eta torloju bidez lotzea.
- Bide-aldaketak, aldaketa-plakak eta bidegurutze-plakak ez ezik ontziratze elementu osagarriak ere jartzen laguntzea.
- Egoera txarrean dagoen bide-tartearen mantentze-lanak eta konponketa egitea.

EI3.9 Pistak prestatzeko eta mantentzeko egoera espezifiko batean:

- Arekak irekitzea.
- Galtzada, bazterbideak eta arekak garbitzea.
- Bideko zuloak betetzea.
- Pista ureztatzea.

A4: Lurpeko eta aire zabaleko indusketetan materiala etengabeko baliabideen bitartez garraiatzeko eragiketetan laguntzeko prozedurak aplikatzea, indarreko segurtasun-araudia beteta.

EI4.1 Uhal garraiatzaileak osatzen dituzten ekipamenduak, elementuak, segurtasun-sistemak eta instalazio osagarriak deskribatzea, funtzionamendurako oinarritzko parametroak adierazita.

EI4.2 Garraiagailu blindatuak (pantzerra) osatzen dituzten ekipamenduak, elementuak eta instalazio osagarriak deskribatzea, funtzionamendurako oinarritzko parametroak adierazita.

EI4.3 Uhal garraiatzaileetako segurtasun-gailuak (larrialdiko geldialdiak, alarmako gailuak eta bestelakoak) eta seinaleztapen-gailuak identifikatzea, haien kokapena adierazita eta haiei eraginez larrialdi-kasuan.

EI4.4 Garraiagailu blindatuetako segurtasun-gailuak (larrialdiko geldialdiak, alarmako gailuak eta bestelakoak) eta seinaleztapen-gailuak identifikatzea, haien kokapena adierazita eta haiei eraginez larrialdi-kasuan.

EI4.5 Uhal garraiatzaileak eta garraiagailu blindatuak luzatzeko eta mozteko eragiketetan erabilitako prozedura eta elementuak deskribatzea, horretarako erabilitako erremintak identifikatuta.

EI4.6 Uhal garraiatzaileen eta garraiagailu blindatuen lehen mailako mantentze-eragiketak ezagutzea, anomalia ohikoenak identifikatuta.

EI4.7 Uhal garraiatzaileekin izandako egoera espezifiko batean:

- Gunea nibelatzea argibideen arabera.
- Beharrezkoak diren erremintak, elementuak eta gainerako lanabesak biltzea.
- Muntatzeko, luzatzeko edo mozteko eragiketetan laguntzea.
- Seinaleztapenak jartzea eta haien egoera kontrolatzea argibideen arabera.
- Segurtasun-gailuen egoera kontrolatzea.
- Garraiatutako materiala bisualki kontrolatzea, egon litezkeen buxaketak detektatuta eta isuritako materiala bilduta.
- Lehen mailako mantentze-lanetan laguntzea.

EI4.8 Garraiagailu blindatuekin izandako egoera espezifiko batean:

- Gunea nibelatzea argibideen arabera.
- Beharrezkoak diren erremintak, elementuak eta gainerako lanabesak biltzea.
- Muntatzeko, luzatzeko edo mozteko eragiketetan laguntzea.
- Seinaleztapenak jartzea eta haien egoera kontrolatzea argibideen arabera.
- Segurtasun-gailuen egoera kontrolatzea.
- Lehen mailako mantentze-lanetan laguntzea.

A5: Lurpeko eta aire zabaleko indusketetan materiala baliabide etenkorren bitartez garraiatzeko eragiketetan laguntzeko prozedurak aplikatzea, indarreko segurtasun-araudia beteta eta langileak emandako argibideei jarraituta.

EI5.1 Garraio-trenak osatzen dituzten ekipamenduak, elementuak, segurtasun-sistemak eta instalazio osagarriak deskribatzea, zirkulazioko, kargako eta deskargako maniobretan jarduteko eta segurtasuneko oinarritzko parametroak aipatuta.

EI5.2 Trenak osatzerakoan krokatzeko, erraileratzeko eta bideak aldatzeko erabiltzen den prozedura deskribatzea, ekintza horietako bakoitzean gauzatu beharreko eragiketak eta jarduteko oinarritzko arauak definituta.

EI5.3 Dumper-mota desberdinak identifikatzea, haren ezaugarri nagusiak eta funtzionamendua ezagututa.

EI5.4 Garraio etenkorrekin lotutako seinaleztapen-sistemak bereiztea, haien erabilera identifikatuta egoera desberdinen arabera.

EI5.5 Lan-eremuan sor daitezkeen anomaliak -garraioko ibilgailuen egonkortasunari eta segurtasunari eragin diezaieketenak- ezagutzea, haiek izan ditzaketen ondorioak identifikatuta.

EI5.6 Materiala plano makurtuen eta bertikalen (kaiolak eta skipak) bitartez garraiatzeko elementuak ezagutzea, baita horiek segurtasun-elementuak ere, materialak kargatzeko eta deskargatzeko prozedura eta bakoitza egiteko kontuan hartu behar diren gutxieneko segurtasun-baldintzak deskribatuta.

EI5.7 Garraio etenkorreko ekipamenduetan egin beharreko eta haren eskumeneko lehen mailako oinarritzko mantentze-eragiketak adieraztea, anomalia ohikoenak identifikatuta.

EI5.8 Dumper bidezko garraioko egoera espezifiko batean:

- Dumperraren kokapen egokia adieraztea kargako eta deskargako eragiketetan.
- Laneko eremua seinaleztatzea segurtasuneko barne-xedapenetan adierazten denaren arabera.
- Lehen mailako mantentze-lanetan laguntzea.

EI5.9 Lokomotora bidezko garraioko egoera espezifiko batean:

- Bagoiak krokatzeko eragiketetan laguntzea.
- Putzu-toberako bagoiak edo dibidieta dutenak kargatzea.
- Bide-aldaketak eragitea, aginduen arabera.
- Aireztapen-ateak eragitea, aginduen arabera.
- Lokomotorak eta bagoiak erraileratzeko eragiketetan laguntzea.

Edukiak

1. Garraiatzen laguntzeko eragiketetako segurtasun-neurri espezifikoak aplikatzea.

- Uhal garraiatzaileen, garraiagailu blindatuen eta burdinbide gaineko garraioaren arriskuak.
- Etengabeko eta burdinbide gaineko garraibideetako segurtasun-gailuak.
- Norbera babesteko ekipoak.
- Babes kolektiboko ekipamenduak.
- Ingurumen-arloko arriskuak eta hartu beharreko neurriak.
- Laneko eremuaren seinaleztapena segurtasun-xedapenen arabera.

2. Bide eta pisten prestaketa, instalazio eta mantentze-lanak.

- Lurraren ezaugarriak.
- Bide bat osatzen duten elementuak.
- Bideen instalazioa. Prozesu operatiboa. Erremintak eta tresnak:
 - Zeharromak adierazitako distantziaren, goragunearen eta maldaren arabera jartzea.
 - Zeharromak juntura-estalkien eta torlojuen bitartez lotzea.
- Instalazioak mantentzeko eragiketak:
 - Bide-aldaketak.
 - Aldaketa- eta bidegurutze-plakak.
 - Trenguneak.
 - Seinaleztapenak.
- Pistak eta sarbideak: bazterbideak, arekak eta galtzada.
- Matxura eta kalte ohikoenak.

3. Materiala etengabeko baliabide bidez garraiatzeko eragiketak.

- Uhal garraiatzaileak:
 - Funtzionamendurako oinarritzko printzipioak.
 - Osagaiak.
 - Instalazio osagarriak.
 - Uhalaren tentsioa eta zentratzea.
 - Muntaia, luzapena eta mozketa.
 - Garraiatutako materialaren kontrola (buxaketak, isuriak), kasu bakoitzean jarduteko modua.
 - Seinalizazioa
- Garraiagailu blindatuak:
 - Funtzionamendurako oinarritzko printzipioak.
 - Osagaiak.
 - Instalazio osagarriak.
 - Muntaia, luzapena eta mozketa.
 - Garraiatutako materialaren kontrola (buxaketak, isuriak).
 - Garraiagailuaren posizionamendua.
 - Seinalizazioa.
- Segurtasun-gailuak: larrialdiko geldialdiak, alarmak.
- Uhala eta garraiagailu blindatuak osatzen dituzten osagaien (bilkariak, banda, txapak, langetak, eta abar) berrikuspena eta mantentze-lanak, eta haien mantentzeko erreminta erabiltzea.

4. Materiala baliabide etenkor bidez garraiatzeko eragiketak.

- Dumperra eta profil txikiko dumperra:
 - Funtzionamendurako oinarrizko printzipioak.
 - Kokapen egokia kargatzeko eta deskargatzeko eragiketetan.
 - Arrisku espezifikoak. Segurtasun-neurriak.
 - Norbera babesteko ekipamenduak. Señaleztapena.
 - Dumperraren eta profil txikiko dumperraren maneiua.
 - Lehen mailako mantentze-lanak (oinarrizko eragiketak).
- Trenak:
 - Osagaiak.
 - Instalazio osagarriak.
 - Arrisku espezifikoak. Segurtasun-neurriak.
 - Norbera babesteko ekipamenduak. Segurtasun-gailuak.
 - Funtzionamendurako oinarrizko printzipioak.
 - Trenen zirkulazioan erabiltzen diren kodeak eta señaleztapenak.
 - Kroatzeko prozedura trena osatzeko.
 - Bagoien eta lokomotoren errailtzeak: katu kremaieradunak eta katu hidraulikoak eta erabili beharreko gainerako erremintak.
 - Putzu-toberako bagoien karga.
 - Bidea aldatzeko sistemak eta funtzionatzeko modua.
 - Lokomotoren eta bagoien lehen mailako mantentze-lanak (oinarrizko eragiketak).
 - Tren-osaera desberdinen maneiua.
 - Anomalia ohikoenak.
- Kaiolak eta skipak:
 - Funtzionamendurako oinarrizko printzipioak.
 - Arrisku espezifikoak. Segurtasun-neurriak.
 - Norbera babesteko ekipamenduak. Segurtasun-elementuak.
 - Ontziratze-gunearen ezaugarriak.
 - Kargatzeko eta deskargatzeko baldintzak.
 - Señaleztapen- eta komunikazio-aparatuak ontziratze-gunean.
 - Langileak eta materiala ontziratze-lanak egitea.
- Errailbakarra:
 - Osagaiak.
 - Funtzionamendurako oinarrizko printzipioak.
 - Arrisku espezifikoak. Segurtasun-neurriak.
 - Norbera babesteko ekipamenduak.
 - Lehen mailako mantentze-lanak (oinarrizko eragiketak).
 - Errailbakarraren muntaia eta haren osagaiak.
 - Errailbakarraren arrasteko trenaren muntaia:
 - Garraioak errailbatar bidez egitea, eta haren osagaiak.
- Laneko eremuaren señaleztapena segurtasun-xedapenen arabera.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako eragiketa osagarriak.